



# TXIKITTO!

2023ko azaroa 219. zenbakia



**NAGUSITAN IZANGO  
DIRENA IRUDIKATZEN**

# AURKIBIDEA

<b>TXISTEAK</b> .....	<b>3</b>	<b>DENBORAPASAK</b> .....	<b>11-13</b>
<b>IKASLEEKIN</b> .....	<b>4-5</b>	<b>LEHIAKETA</b> .....	<b>13</b>
<b>BERRIKETAN</b>		<b>ZER IRAKURRI</b> .....	<b>14</b>
<b>IKASTETXEETAKO</b> .....	<b>6-7</b>	<b>BITXIKERIAK</b>	
<b>BERRIAK</b>		<b>IPUINA</b> .....	<b>15</b>
<b>AITXITXA-AMAMEKIN</b> .	<b>8-9</b>	<b>ZU BAI MARGOLARI</b> ...	<b>16</b>
<b>BERBETAN</b>			
<b>NI BAI ARTISTA</b> .....	<b>10</b>		

 **eta kitto!**  
euskara elkarteak

**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!”  
Euskara Elkarteak  
Urkizu, 11  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio-  
kontseilua**  
Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Ikusentzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Azaleko argazkia**  
Ekhi Belar

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96





- Nor bustitzen da, handia, ertaina ala txikia?
- Mmmm... Ez dakigu, nor?
- Inor ez, nork esan du euria egiten duenik??



Elefante bat igerilekura doa. Nola ateratzen da?  
**BUSTITA!!**

Jaimito eta Pepito eskolan daude eta irakasleak galdetzen dio Pepitori:

- Zuk zein eskurekin idazten duzu? Ezkerrarekin ala eskuinarekin?
- Batekin ere ez, nik arkatzarekin idazten dut!



Andereño batek Pepitori:

- Azterketa kopiatu egin duzu.
- Nola dakizu hori? - Pepitok.
- Sei erantzun zure lagunaren berdinak idatzi dituzulako eta zazpigarrenean zure lagunak "Ez dakit" idatzi du eta zuk "Nik ere ez"- andereñok.





# Nagusitan zer izan nahi duzu?



BIDEOA



Gure buruari askotan egiten diogun galdera da. Batzuk oso argi dute, beste batzuk ez hainbeste. Baina lasai, oraindik denbora duzuelako horren inguruan pentsatzeko. Amañako ikasleek, ostera, euren asmoen berri eman digute.

**YOUSSEF  
LAMJAFAR**  
10 urte



Futbol jokalaria izatea gustatuko litzaidake. Real Madril da nire talderik gogokoena, baina Milango Inter ere gustatzen zait. Futbolaria ez banaiz, ez dakit zer izango naizen, ez dut B planik.

**ANE  
FERNANDEZ**  
10 urte



Albaitaria izan nahi dut, animaliak sendatzeko.



**AYA  
LAHMAR**  
10 urte



Epailera izan nahi dut. Jendeari laguntzea gustatuko litzaidake, euren arazoak konpontzea. Beti pentsatu izan dudan zerbait da eta polita iruditzen zait.

**ALAN  
ESCALONA**  
10 urte



Saskibaloia jokalaria izan nahi dut, diru asko irabazten eta asko bidaiatzen dutelako. Noski, saskibaloian jokatzeko asko gustatzen zait. Saskibaloilaria izatea lortzen badut, ez dakit zer egingo dudan, baina beste lanen batean ibili behar naiz. Ikasi egin beharko dut. Adibidez, programazioa.

**NAHIA  
HIJAR**  
10 urte



Alkatea izatea gustatuko litzaidake, Eibarko alkatea. Agintzea asko gustatzen zait. Alkate moduan gauza asko egin beharko nituzke, jendeari lagundu, baina baita diru asko irabazi ere. Beste aukera bat sukaldaria izatea da, asko gustatzen zaidalako sukaldean ibiltzea eta postreak egitea.

**IRIA  
IGLESIAS**  
10 urte



Sendagilea izatea nahi dut, jendeari laguntzeko eta zaintzeko. Medikua ez banaiz, atzazkalak apaintzea gustatuko litzaidake.



## AMAÑA

Urtero moduan, aurten ere Superakeak izango dira 2. mailako ikasleak eta programarekin hasteko Klik-en bisita izan genuen urriaren 25ean. Etorkizunetik datorren superheroiak ikasle hauen laguntza behar du Eibar garbiago, justuago, osasuntsuago, euskaldunago eta zoriontsuago bat izatea lortzeko. Hitz gakoak ere erakutsi zizkien eta hor dabilta Akeklik, Akepare, Akelaket eta Akebake jo ta su. Bestetik, eskolako txikiek krispetak egin zituzten gurasoen laguntzarekin, zein gozoak! Arratsalde polita pasatu genuen!



## URKIZU

Urriaren zehar, irakasle guztiok Nerea Mendizabalen formakuntza interesgarria jaso genuen “Komunikazio ez-bortitza”ren inguruan. Lagungarria izan zaigu benetan! Bestetik, 2. eta 4. mailako ikasleak Oiartzungo Arritxulo aterpetxera irteera egin zuten eta denek primeran pasatu zuten naturaz gozatzen eta beraien artean harremanak sendotzen. “Arimen gaua” ere ospatu genuen eta, bukatzeko, azaroaren hasieran 1. mailako ikasleak Eibarko Udal liburutegia ezagutzera joan ziren. Mila esker liburutegiko arduradunei eskainitako laguntzagatik!

## ARRATEKO ANDRA MARI

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatu genuen eskolan eta Euskal Herrian jai hau nola ospatzen zuten ere gogoratu genuen. Eguna girotze aldera, 6. mailako ikasleek izara zaharrak jantzi eta HHko eta LHko 1. ziklokoen jolastordura joan ziren eta beraiekin jolasean ibili ondoren, ipuintxo bat kontatu zieten. LHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleek “Izurde mutikoa” filma ikusi zuten Coliseon, Gaztañerre eguna ospatu genuen, LHko 3. eta 4. mailako ikasleak Eibarko Udal liburutegira joan dira eta azaroaren 24an Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ere gogoan izan dugu.





## LA SALLE

Udazkenarekin freskotasuna ailegatu zaigu, baina guk tinko jarraitzen dugu lanean proiektuetan murgilduta. Hori dela-eta, LH5eko ikasleak Gasteizen egon ziren Erdi Aroa gaiarekin lotutako hainbat gauza ikasten. LH4 eta LH5eko ikasleak Coliseora joan ziren "Izurde mutikoa" pelikula ikustera, eta aste berean LH4koak Ekainberrira joan ziren arbasoen aztarnak ikustera. Eguraldi eskasa izan arren liluratuta etorri ziren ikusitakoarekin. Bukatzeko, Ipar Skate eskolara joaten egon dira LH6koak. Primeran pasatu dute!! Hori bai, kaskoak ahaztu gabe, e??!



## SAN ANDRES

San Andres ikastetxeko 4. mailako ikasleek urriaren 18, 19 eta 20an Legasako (Nafarroa-Bertiz) barnetegian hiru egunetako egonaldia egin zuten. Primeran pasatu zuten bertan, tirolinetatik jaitsi ziren, orekari eutsiz zuhaitzen arteko ibilbideetatik igaro ziren, Bertizeko lorategi botanikoa ezagutu zuten eta Baztaneko "Via ferrata"-ko ibilbidea ere egin zuten. Hainbat momentutan euren beldurrei aurre eginez lortu zuten erronkak gainditzea. Primeran pasatu zuten!

## ITURBURU

Azaroaren 13an Gaztainerre ospatu genuen Iturburu. Goizean zikloka elkartu ginen aretoan eta abestu, antzerkia egin eta noski, gaztaina goxo goxoak jan genituen. Aurten, gaztainak poliki-poliki janda eta ondo murtxikatuta irentsiz gero, haizerik ematen ez dutela jakin dugu eta, noski, aholkuari kaso egin diogu. Zorionez "puzkar orkestarik" ez dugu izan (je, je, je...). Datorren urtean berriz ere...



## ALDATZE

Azaroaren 17an, ikastetxeko eguna ospatzeko ekintzen barruan, bidezko merkataritzako produktuekin osatutako otar eder bat zozketatu genuen. Beste gauza batzuk ere sartu ziren zozketa horretan. Hau da emozioa bizi izan genuena! Irabazleak pozik eta saria eman zutenak ere bai! Denok egoten gara, handi eta txiki egun horren zain! Zoragarria izaten da-eta!



**Ander Vispo Mutiloa eta Conchi Ciarso:**

# «Mugikor barik oso ondo moldatzen ginen»



**Oso harreman estua dute Anderrek eta Conchik. Ez da gutxiagorako! Gustora etorri dira gurera eta Conchiren haurtzaroari buruz gehiago jakiteko balio izan digu, bere ilobaren bitartez. Dena dela, Anderrek ere bazuen zer esateko, amamaren gozoek berba barik lagatzen badiote ere.**

**Kaixo, amama! Zer moduz? Zer iruditzen zaizu esperientzia hau?**

Kaixo! Oso ondo nago. Polita da esperientzia hau.

**Noiz eta non jaio zinen?**

Eibarren jaio nintzen, 1952ko apirilaren 18an.

**Zer oroitzapen duzu zure ume denboratik?**

Hain ezberdina da gaur egungoarekin konparatuz gero... Nire oroitzapena ona da, polita. Beste modu batean bizi ginen. Kalean ordu asko pasatzen genituen eta asteburuetan,

arratsaldeetan, mendira joaten nintzen aitxita eta amamarekin, Arrajolara hain zuzen ere. Merienda eramaten genuen eta asko gustatzen zitzaidan.

**Zerbait faltan botatzen duzu?**

Ez dut pentsatzen ezer faltan botatzen dudarik.

**Ze eskolara joan zinen?**

Txiki-txikitan Untzagan ibili nintzen, mojekin. Gero, Aldatzera joan nintzen.

**Nola gogoratzen duzu eskola?**

Ondo. Ez nintzen oso ona (barreak). Gogorragoa izan naiz zure amarekin eta izeko Anerekin, gurasoak nirekin baino.

**Zelan konpontzen zineten eskolan Internet barik?**

Gauzak buruz egiten genituen eta idatzi egiten genuen. Gero, informazioa bilatzeko, liburutegira joaten ginen edo etxean genituen liburuetan bilatzen genuen.

**Nola moldatzen zineten telefono mugikor barik?**





Lagunekin, geratzeko, adibidez, 15:00etan toki batean elkartzeko geratzen ginen eta kitto. Bertan agertzen ginen ordu horretan. Etxean bagenuen telefonoa, baina mugikor barik oso ondo moldatzen ginen. Orain telefono mugikorra erabiltzera ohitu gara, baina lehen ondo genbiltzan.

#### **Zenbat zineten etxean?**

Ez daukat anai-arrebarik, eta gurasoekin eta osaba Jesusekin bizi nintzen.

#### **Etxeko gauzetan laguntzen zenuten?**

Asko ez, egia esan (barreak).

#### **(Barreak) Ezta nik ere! Zer sentitu zenuen etxean telebista ikusi zenuen lehen aldian?**

Demaseko gauza izan zen! Gure etxera telebista ez zen segiduan etorri, lagun batzuek bazuten dagoeneko. Orduan, oso pozik hartu genuen. Txuri-beltzekoa zen.

#### **Zelan aldatu da Eibar txikia zinenetik?**

Orain, igogailuak eta eskilara mekanikoak daude edonon, eta lehen, hanken laguntzekin igo behar izaten genituen eskilarak eta aldapak. Eibarren beti egon dira aldapak, arlo horretan ez da aldatu. Bestela, esango nuke zuentzat okerragoa dela egoera gaur egun, ez duzelako guk

jolasteko izan genuen tokirik.

#### **Eta futbolera jokatzeko, are gutxiago!**

Guk kalean jolasten genuen: patinekin, sokarekin... Desberdina zen. Gainera, ez genuen hainbeste etxeko-lan egin behar eta ez genuen eskolaz kanpoko hainbeste ekintzarik egiten. Ni dantza egiten hasi nintzen gaztetan. Lehendabizi, Klub Deportiboan, gero Kezkan eta ondoren Amalurren. 8 urterekin hasi eta 34 urte eduki arte ibili nintzen dantzan. Irakaslea ere izan nintzen.

#### **Zein da egiten duzun janaririk gozoena?**

Hori zuk esan behar didazu!

#### **Euskal pastela, ijito-besoa, hojaldre-loreak, kroketak... Dena egiten duzu ondo!**

Barixakuetan elkarrekin bazkaltzen dugu.

#### **Zer egin dezakegu Eibarren euskara gehiago entzuteko?**

Zaila da horri erantzutea. Nik neuk lagunekin gaztelaraz egiten dut, nire belaunaldiko gehienek bezala. Dena dela, kalean euskara dezente entzuten dela esango nuke. Txikitari, gurasoek euskaraz egiten zidaten eta nik gaztelaraz erantzute nien.



# Abenduko egutegi misterioa

Hilabete barru Gabonetan bete-betean egongo gara. Baina garaiz gabiltza oraindik abenduko egutegi berezi hau egiteko. Adi!

## MATERIALA:

- 26 komuneko paper-tutu
- Kartulina berdea, gorria eta marroia
- Errotulagailu beltza
- Itsasgarria edo grapak
- Zinta itsaskorra
- Artaziak eta arkatza



## NOLA EGIN:

- 1.- Ia erraz lortzen dituzuen 26 tutuak, familian edo lagunartean eskatu ditzakezue, asko dira-eta. Erabili tutuak kartulinetan biribilak marrazteko, horiek izango dira tutuen tapal. Bikotza beharko dugu, hau da, 52 biribil.
- 2.- Tutuak elkarri itsatsiko ditugu zuhaitza osatzeko. Oinarrian 5 tutu itsatsiko ditugu. Horien gainean 6 tutu eta hortik aurrera piramidea osatzen joango gara. Nahi izanez gero grapatu egin ditzakezue eta amaieran, hobeto eusteko, zinta itsasgarria jarri.
- 3.- Orain, zuhaitzaren aldeetako bat kartulina berdearen gainean itsatsiko dugu eta soberakina moztuko dugu.
- 4.- Buelta ematerakoan tutu bakoitzean sartuko dugu (punta puntakoan eta guk nahi dugun beste batean izan ezik) Gabonetako 24 sorpresa. Zuek erabaki zer sartu, oparitxoak, gozokiak... Eta tapak jarriko ditugu eta tapa bakoitzari zenbaki bat, abenduko 31 egunak. Eta hortxe dugu egutegi bikaina!



TI-TA

## Alanbrezko bastoitxoak

Hiru gauza besterik ez dituzue behar ondorengo eskulan erraza egiteko. Apuntatu ondo: ilea duten alanbre berdeak eta lepokoak egiteko erabiltzen diren aleak edo bolatxoak, gorriak eta txuriak. Sartu bolatxoak bastoian, gorriak eta txuriak txandaka eta, behin amaituta alanbrea apur bat tolestu bastoi itxura eman arte. Horra hor zuen etxerako apaingarri dotorea!



## LABIRINTOA



## HIZKI-ZOPA

B	S	A	L	S	P	J	M	A	P	R	I	A	M
U	L	R	U	F	W	X	W	J	O	P	X	+	
S	U	I	N	V	L	X	A	N	E	S	P	L	
L	R	S	A	Y	U	P	X	P	X	O	L	A	
P	E	M	O	H	A	M	E	D	J	P	E	W	
A	T	R	S	W	K	H	P	B	A	A	K	+	
B	E	X	Y	T	P	E	H	U	S	U	R	T	
U	R	K	A	A	Y	U	P	P	H	U	A	S	
X	V	J	B	S	Y	P	E	A	L	J	M	R	
U	B	L	S	X	O	R	K	S	B	K	M	E	
E	O	E	P	T	R	J	X	E	U	P	A	K	
A	K	H	S	A	R	A	Y	K	L	E	R	T	

### IZENAK:

LUNA - ASIER - LILI - PABLO - ITXASO - MARKEL - MARIAM -  
MOHAMED - UXUE - KEPA - SARA - IKER



# LOTU ZENBAKIAK



# 8 DESBERDINTASUNAK





# 7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **abenduak 12** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



## AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa KOIKILLI, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko motxila zuretako! ZORIONAK!

**Pantxo zezena** 6 urtetik aurrera

Eta a zer nolako festak! Patxok oro beldurgarriak atera eta instantean harapatzen zuen jendea, eta zilipurdika botatzen adar handiekin, trapu zahar baten modura...

**Galdutako amuletoa** 8 urtetik aurrera

Lord Thomasek familiako kutun bat itzultzeko eskatu die Black-ei, duela urte batzuk guztion onerako lapurtu zuten besokoa. Baina amuletoa ez dago lapurren familiaren esku. Izeba Paulak Amandari esan dionean bere birramonak duela urte batzuk besokoa oparitu zuela, plan bat prestatu dute altxorra berreskuratzeko.

**Marrubizko uda** 10 urtetik aurrera

Maitek askotan pentsatzen du bere familia ez dela normala, etxean ez baitituzte, antza, gauza normalak egiten. Oporretan, esaterako, bere Berlingo urdinera igo, karabana zahar bati tiraka, herri galdu bateko kanpin batera joatea besterik ez zaie gurasoei bururatu. Hori gutxi balitz, aita eta ama, iritsi orduko, txakurra eta katua bezala hasi dira...

**BITXIKERIAK**

*Sator batek 100 metro luze den tunel bat egin dezake gau bakar batean.*



*Ezin da paper zati bat erdira 7 aldiz baino gehiago tolestu.*

*Ba al zenekien zure urtebetetze data munduan gutxienez beste 9 milioi pertsonarekin partekatzen duzula?*





# Hegazkineko katastrofea



KAIXO! Ni Ilyas naiz 10 urte ditut eta Eibarkoa naiz. Ezagutu nahi duzu nire lagun bat? Ba hemen dago, Unax da, 10 urte ditu, ile eta begi marroiak ditu, Unax bihotz oneko pertsona bat da eta ni bezala Eibarkoa da.

2023. urtean Unax eta ni Bartzelonako aeroportuan geuden Hawaira joateko. Eta bidaiari Adam aurkitu genuen (Adam gure lagun bat da eta gure adinekoa). Ordu bat eta gero, hegazkinera sartu ginenean eta 10 minutu ondoren hegazkinak aireratu zuen eta bidaiari hasi genuen. Itsas ozeanoa zeharkatzen geudenean, urakan bat sortu zen. Eta hegazkinak ezin zuen urakana jasan, hegazkina altura galtzen hasi zen eta itsasora erori ginen. Baina zorte onez, hegazkina ez zen urperatu. Urakana lasaitu arte, hegazkinaren hegoaren goiko zatiari eutsita jasan genuen istripua. Zoritxarrez, ordea, gurekin zihoazen beste bidaiari guztiak hil egin ziren, gu izan ezik.

Itsasoa eta urakana lasaitu zirenean, Unaxek, Adamek eta nik irla bat ikusi genuen. Eta igeri egiten irlara joan ginen. (Uharte huts bat zen). Irla oso haundia zen eta zuhaitz, palmondo, zuhaixka... asko zeuden.

Honetaz gain, fruta eta fruta asko: kokoak, madariak, sagarrak, pikuak...

Kobazulo bat aurkitu genuen eta kobazulo hori izan zen irlako gure behin-behineko etxea.

Eroritako enborrak aurkitu genituen, goroldio gogor asko, enborrak lotzeko erabili genuen eta horrela baltsa bat egin genuen eta janari asko hartu genuen. Etxera bueltatzeko bidaiari hasi genuen. Baltsan bost egun igaro ondoren, halako batean, lurra ikusi genuen eta zorte asko izan genuen. Debako hondartzara heldu ginelako, hau da, gure etxe maitetik gertu geunden!

A ze abentura bizi genuena, egia esan, hegazkinenez bidaiatzeko gogo guztiak joan zitzaizkigun. Handik aurrera nahiago izan dugu, itsasontzian bidaiatu!

**Ilyas Zaid**

# ZU BAI MARGOLARI!



QueTherapy